

'Txalaparta Party Aparta' gaur eta 'Txalaparta erromeria', larunbatean

■ 19:30etan Gasteizko 'Txalamako' taldea, Biterin ■ 24:00etan: Txalaparta Party Aparta ■ Biharko erromeria: Tilosetan, eta euria bada Elizatxo ikastolan.



Ikasleak txalaparta jotzen eta maisuak begira.

GAUR, ostirala, eta larunbatean Txalaparta festak girotuko ditu Hernaniko txoko asko. Txalamako gasteiztarrek zabalduko dute gaurko agenda eta Txalaparta Party Apartak itxi.

'TXALAMAKO' TALDEA
Txalamakok gaur emango duen Gaia ikuskizunak, txalaparta oinarri hartuta, musika esperientzia asko bildu eta uztartzen ditu. Txalaparta hutsarekin hasten da eta gauza berriak eranstean dijoaz: panderoa, alboka, metala, antzerkia, dantza eta erritmo ezberdinak, flamenkoa... Hori dena eta gehiago 19:30etan, Biterin.

'PARTY APARTA'
Txalaparta Party Aparta txalaparta eta beste instrumentu batzuekin musika teknoa egiteko esperimentu bezala sortu zen. Funtzionatu, eta geroztik urtero egiten da. Gaueko hamabietan Goiz Argi tabernan.

ERROMERIA
Larunbatean, 18:00etatik aurre-

ra txalaparta erromeria izango da Tilosetan. Sagardoa, alboka, dultzaina, eta txistu taldeak lagun direla, Tilosetako iskina bakoitzean txalaparta saio libreak egingo dira.

JUAN MARI BELTRAN
(Musikari eta biltzailea)
"Hernani da Euskal Herriko txalaparta plaza nagusia".

Ondoren, herri afaria eta txalaparta jaialdia. Ia Euskal Herri osoko txalapartariak joko dute hor: Baigorriko Txalaparta taldeak, Bizkaiako Zugarramurdik, Nafarroatik Uharteko taldeak, Gipuzkoatik Zuhaitzen soina kolektibo urretxuarra eta Arabatik Txalamakok.

Hernaniarrak ere hor izango dira noski. Gaztixoek hasiko dute saioa eta *Ttakun Ttan*

Ttakun taldeak ere joko du. Bestalde, Zuaznabartarra eta Goikoetxeatarrak ere etortze-koak dira. Afaria 2.200 Pta da. Joan nahi duenak, Musika Eskolara deitu: 943-557409

PLAZA NAGUSIA
Juan Mari Beltranen ustez, Hernani da Euskal Herriko txalapartaren motorra eta plaza nagusia. Eta Txalaparta eskola da horren oinarria. Hernanin 16 lagun ari dira txalaparta ikasten. Baina, hemen ikasi dutenek kanpoan ia 60 bat laguni erakusten diete. Txalaparta festa bezalako festa osoak, Hernanin antolatzen dira. Hau guztia Felipe Ugartek Txalaparta Festarako egin duen kartela laburbiltzen du: Hernanin txalaparta autopistan dijoa. □

■ ESKOLARTEKO KIROLA

Umeeek atletismo probak dituzte bihar, Antziolan

■ Benjaminak eta Alebinak izango dira ■ Denera, 140 atleta gaztek hartuko dute parte

GOIZEKO 10:30etatik aurrera, 140 ikaslek atletismo proba izango dute bihar. Neskamutiko gazteek lau proba egin beharko dituzte: 80 metro, 300 metro eta 4x75 erreleboak. Antziolako pistan ikastetxe guztietako umeak aterako dira.



Hernaniko atleta gazte bat

IGERIKETA PROBA, EGIN EZ
Aurreko astean, igeriketa proba zegoen eskolarteko kirol ekitaldien barruan. Baina kiroldegia itxita dagoenez, ez zen probarik izan. □

Haurtzaindegira zein ume joango diren erabakitzeke zozketa gaur egingo da

■ 43 ume daude izena emanak eta 16rentzat dago lekua ■ Zozketa 09:00etan udaletxeko pleno aretoan



Laster beste 16 ume izango dira haurtzaindegian.

HERNANIKO haurtzaindegi publikorako izen ematea asteartean bukatu zen. Guztira 43k eman dute izena; tokia, ordea, 16rentzat baino ez dago. Zozketan ere ez dira denak aukera berdinekin sar-

tuko: Ongintzak eskatuta datozenak aurretik daude, eta herriko umeak kanpokoen aurretik sartuko dira. Zozketa gaur goizean egingo da eta nahi duena joan liteke ikusi eta emaitzen berri jakitera. □

HORTZ KLINIKA
MEDIKU ESTOMATOLOGOAK
Maribi Oiarbide
Manu Oiarbide
Garbiñe Otxoa
Izpizua 15 -2.A (eskubiko esk.)
Tel. 943 557653 - 943 553850

PROCOLOR ZENTRUA
P.L.L. Landaribar, s.l.
Pintatzeko ekipoa
Industri eta dekoraziorako pinturak
Pintatutako paperak
Kardaberaz 45 -Tel 943 552131-HERNANI

HERNANI BIDAIAK
Bidaiak
HERRIAK - MENDIAK - TURISMOA
Urbietan, 6
☎ : 943- 33 00 49 / 33 01 74
Faxa: 943 - 33 01 74
20.120 HERNANI

PUTZUETA
HARATEGIA - URDAITEGIA
Kardaberaz, 39
Tel: 943 55 27 87
HERNANI

ELKERRO
FRUTAK
Bertako produktuak
Fruitu exotikoak
Telefonoz eskatzeko:
☎ 943 33 32 75
Antziola 1, HERNANI

'Familia eta Prebentzioa' jardunaldiak, Inmaculada, Elizatxo eta Urumean

■ Asteartean izan ziren, eta maiatzaren 15 eta 22ko (datorren asteartea eta hurrengo) hitzaldiekin bukatuko dira jardunaldiak.



Inmaculada ikastetxean, lehengo astearteko jardunaldietan.

INMACULADAN prebentzioa txiki txikitatik hastearren garrantziaz aritu zen Garbiñe Merino. Bikotean banaketak, haserreak... baldin badaude kontuz ibiltzea komeni dela esan zuen, haurrak asko sufritu bailezake eta segurtasuna galdu. Bestalde, haurrari mugak ere txikitan jarri behar omen zaizkio, nola jokatu ikas dezan.

ETXEAN KONFIANTZA
Urumean, haurrak hitz egiten ez badu nola jokatu azaldu zuen Txus Congilek. Beharrez-

kotzat jo zuen konfiantza giroa lortzea, eta horretarako ezinbestekoa seme-alabek esandakoa ez beti zalantzan jarri edo kritikatzeko. Seme alaben arteko haserredietan nola jokatu ere eztabaidatu zuten.

BEHARRAK AZALDU
Familia barruan sentimenduak eta beharrak nola adierazi azaldu zuten Elizatxon: laguntza nola eskatu, komunikazioa nola landu... Haurren kasketen aurrean zer egin ere hitz egin zuten, azkenean hau-


rraren eskatzeko edo haserrea azaltzeko bidea baita.

JARDUNALDI IREKIAK
Datorren astean eta hurrengoan hitzaldien jarraipenak izango dira. Nahi duenarentzat irekiak dira, aurreko hitzaldietan egon ala ez. Hitzaldien hasieran aurreko egunetan hitz egindakoaren laburpena egingo da.

Datorren asteartean:
Inmaculadan 14:45 eta 16:15. Elizatxon 19:30 eta 21:00. Urumean 14:45 eta 16:15. □

Ikaleek ingurumenari buruzko erakusketa jarri dute Biterin

■ Maiatzaren 23a arte egongo da ■ Arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara.



Ikasleak Hernani inguruko bazterrak miatzen.

HERNANIKO ikastetxeetako haurrak ingurumenari (medio ambientea) buruzko tailerrak eta lanak egin dituzte Artelatze

antolatuta eta udaleko Hezkuntza Batzordeak diruz lagunduta. Helburua kontzientziatu eta hezitzea izan da.

HONDAKINAK, LANDAREAK ETA URA
Laugarren mailako umeek hondakinen inguruko tailerrak izan dituzte: hiri hondakin solidoen tratamendua ikusi, zabor poltsetan joaten diren hondakinak aztertu eta Hernanin zein kontenedore dauden ikasi dute.

Bostgarren mailakoek landareak aztertzen, papela erreziklatzen eta mintegiak (biberoak) nola funtzionatzen duten ikasi dute.

Seigarrenekoak uraren inguruko tailerrak izan dituzte. Ura inguruan, ura hirian eta urak eragindako mugimenduak.

Tailer guzti hauen emaitzak Biteri kultur etxean daude lehengo asteartetik datorren asteazkenean. □

GARBITZAILEEN GREBA

Osasun eskubidea betetzen ez delako ekintzak egingo dituzte ikastetxe publikoetako gurasoek

■ Ikastetxeen egoera astero begiratzeko eskatu dute
■ Udalak espediente sanzionatzailea sartu dio EUDELI.



Gurasoak udaletxe aurrean kontzentratuta, atzo.

GARBITZAILEEN greba medio eskola eta ikastola publikoetako guraso taldeek (Sortzen Ikasbatuaz eta Baikorak) prentsa ohar bat bidali dute. Beren hitzetan "ikastetxeetako egoera larria da" eta "ikasleen osasun eta hezkuntza eskubideak arriskuan jartzen ari dira" greba honekin. Udaletxe eta Hezkuntza Sailari, ikasleen osasun eskubideak bermatzeko, beharrezko neurriak hartzeko eskatzen diete eta ekintzak deitu dituzte.

HIRU EKINTZA

1.- Ikastetxeen osasun egoera astero ikuskatzea eskatuko zaie udalei, eta beharrezko neurriak hartzeko eskatu.
2.- Udaletxeetara gurasoek sinatutako eskutitzak bidaliko dituzte garbitasun eta osasun egoera salatuz.
3.- Asteartero hezkuntza delega-

ritza aurrean kontzentratuko dira eta ostegunero udaletxe aurrean, 10:00etatik 10:30etara.

ESPEDIENTEA EUDELI

Hernanikoa izan da enpresari espediente sartu dion udal bakarra. Gobernu taldetik esan digutenez apirilaren 25ean zerbitzu guztiak bete-tzeko eskatu zitzaion EUDELI eta gutxiengo zerbitzuak betetzen hasi zirenean sartu zioten espediente sanzionatzailea; enpresak errekurritu egin du. Udaleko ordezkariak astero biltzen dira enpresarekin eta informazioa ikastetxe guztietara zabaltzen dute. Hori baino gehiago ezin dutela egin diote, erantzukizun guztia enpresarena omen delako.

Kirol patronatuak ere sartu dio EUDELI espediente, zerbitzuak ez betetzeaz gain diru galera haundia dakarrelako. □

SAN JUAN JAIK

Akelarreko entsaioa gaur Laubidietan

■ Arratsaleko 19:30etan ■ Jende faltan dabilta.

PRODUKTUEN PREZIOAK (ORDIZIAKO AZOKATIK)

Bertako bainak, baratzuriak eta kalabazinak hasi dira

■ Udaberriko xixak 5.000-4.000 ptara jeitsi dira.

■ Arkumeak (azoketatik kanpo), kiloko, 525 pta egiten du.

Bainak	700 pta kiloa	Antxumea	550 pta kiloa
Baratzuriak	100 pta sorta	Konejua	300-325 pta kiloa
Kalabazina	75-100 pta bakoitza		
Porruak	125-200 pta sorta	Kantauriko antxoak	650 pta kiloa
Babak	300-350 pta kiloa	Bakailua	1.450 pta kiloa
Ilarrak	800-1.000 pta kiloa	Txitxarroa	950-1.200 pta kiloa
Letxuga	75-125 pta bakoitza	Mediana	1.750 pta kiloa

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

▶ Taxiak: 943 550093
▶ Udaltzaingoa: 943 333288
▶ DYA: 943 464622
▶ Autobusak: 943 556662
▶ Anbulatorioa: 943 557750
▶ Jokalari anonimoak: 943 331103

⚡ FARMAZIAK

▶ Egunez: Sagastiberri Urbieta 7 ☎ 943 552941
▶ Gaez: Zatarain Andoain. Arteta z/g ☎ 943 590802